

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

275 positibo berri
15.310 positibo guztira*
hildako EAEn
UCIn EAEn

NAFARROAN

466 positibo berri
25.403 positibo guztira
651 hildako
UCIn Nafarroan

*HERNANIN 461 (+10), ASTIGARRAGAN 119 (+2)



60 urtez egindako lana erakutsiko dute

HERNANI
GAIA

2



Sei partidu eta bost garaipen, asteburuan

HERNANI
ESKU PELOTA

7



«Nepalen Manaslu eta Annapurnako trekkingak egin genituen»

HERNANI
MENDIRIZ MENDI

4

Hasiera borobila, talde berdeak

Joan den asteburuan eman zioten hasiera 2021-2021 denboraldiari, Astigarraga eta Hernaniko taldeek. Hernaniko Ohorezko Erregionalak epaileak txistua jo baino segundu batzuk lehenago sartu zuen zirt edo zarteko gola, 93garren minutuan. Estreinaldi bikaina izan zuen Unai Munduateren taldeak, Añorgaren aurka.

5

Emaizta gazi-gozoa, boleibol taldearentzat

HERNANI
BOLEIBOLA

6



Euskal Herriko 1go Segia Sail Txapelketa, igandean

HERNANI
SEGA

8

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatía

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

60 astez, 60 testigantzekin, 60 urteetan egin den lana erakutsiko du Atzegik aurkeztu duen kanpainarekin

Omenaldia egin nahi zaie 60 urteetan zehar elkartearen bidelagun izan diren pertsonen eta gonbidapena luzatu gizarteari, kolektiboari laguntzen jarrai dezan. «Zurekin gertu, urrutira iristen gara» diote elkarteko arduradunek.

URUMEA ATZEGI

Atzegiren (adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko elkartea) sentsibilizazio-kanpaina aurkeztu zuten atzo Biterin. Bertan egon zen elkarteko Aloan Agirre, kanpainaren xehetasunak azaltzen, baita Xabier Lertxundi alkatea ere. Alkateak elkartearen garrantzia azpimarratu zuen berdintasuna lortzeko bidean. «Kolektibo bulnerableagoei aukera eman behar diegu administrazioetik berdintasuna lortzeko».

Ondoren Aloan Agirrek hartu zuen hitza eta «aurten goa berezia dela esan zuen, «bizi dugun osasun-egoera dela eta, baita Atzegik 60 urte beteko dituelako ere».

Atzegi 60 urte bidelagunak biltzen lelopean, Atzegik bidelagunen irudia nabarmendu nahi

du aurten; «adimen desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, elkartarekin bat eginez, borrokatzen duten pertsonak hain zuzen ere. Pertsona horiekin lortu dugu gizartea aldatzea, begirada aldatzea, aukerak areagotzea eta azken batean, eskubide asko onartzea» adierazi zuen Aloan Agirrek..

«Baina gogoan izan behar dugu oraindik beste erronka asko geratzen direla aurretik eta Gipuzkoako gizartearen babesak ezinbestekoa izaten jarraitzen duela» gogorarazi zuen.

Testigantzak webgunean bilduko dira astez aste

60garren urteurrenari keinu eginez www.atzegi.eus/bidelagunak webgunean astero, 60 astez, protagonista bat aurkeztuko du (adimen desgaitasuna duten pertsonak, senideak, bolunta-



Biterin aurkeztu zuten atzo Atzegiren kanpaina berria.

rioak edo bestelako bidelagunak), bere esperientzia pertsonala (zer lorpen baloratzen duen gehien, zer amets dituen etorkizunera begira...) azaltzeko.

Hala, urteurrenaren amaieran, 2021eko abenduaren 20an, Kursaalaren ekitaldi bat egitea aurreikusten dute 60 aste pasa eta gero. «Ekitaldi horrek urteurrenari amaiera eman eta etorkizunari bide ematea izango du helburu».

Buruntzaldean 158 familia, 101 pertsona kolaboratzaile eta 540 atzegizalek osatzen dute elkartea. Guztira 2.054 familia

(2.140 adimen desgaitasuna duten pertsonak), 2.534 pertsona kolaboratzaile eta 10.486 atzegizale daude. Elkartearen oinarria guztira 15.074 pertsona dira.

Atzegitik diote gauzak asko aldatu direla 1960an familia batzuk seme-alaben etorkizunaren alde borrokatzeko elkartu zirenetik. «Lehen pentsaezinak ziren helburuak lortu dira esparru ezberdinetan; hezkuntzan, egoitzetan, lanean, aisia, oro har, eskubideen arloan, hala nola hezkuntzarako eskubidea, lanerako eskubidea, botoa emateko eskubidea, modu indepen-

dentean bizitzeko eskubidea...».

Azkenik aipatu, gaur, kanpainaren ekitaldi nagusia egingo dutela Donostiako Antzoki Zaharrean. Ekitaldiak aurreko urteetan baino edukiera txikiagoa izango du eta osasun-agintariekin eskatutako segurtasun-neurri guztiak hartuko dituzte kontuan. «Bertan, kanpaina azalduko dugu argazki, musika eta bideoen bitartez. Atzegik elkartariek izpiritua mantentzearen hitzorduari eutsi nahi izan dio baina betiere bizi-tzea egokitzen ari zaigun egoera berezira moldatuz». **K**

'Emakumea eta espetxea' zikloa prestatzen ari dira

Azaroan zehar Hernaniko emakume presoek elkarriketak, hitzaldia, informazio banaketa, idatziak... plazaratuko dira.

HERNANI SARE

Hernaniko Sarek datorren hilean, azaroan, *Emakumea eta espetxea* izenburupean dinamika edo ziklo bat martxan jarriko du.

Ziklo horretan, izenak dioena landuko dute, hau da, Hernaniko preso politikoen gaia ema-

kume presoaren ikuspegitik.

Hitzaldia azaroaren 20an

Horretarako, hainbat dinamika prestatzen ari dira, hala nola, azaroaren 20rako hitzaldi bat dago aurreikusita Biteri kultur etxean.

Bestetik Koordinadora feministarekin elkarlanean, informazio banaketa, presoek egingo diren hitzaldia, murala egingo dira azaroan zehar. Hernaniko bi emakume presoek, Ainhoa eta Itxaso, elkarriketa bana egitea ere aurreikusten du Sarek. **K**

'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimena, Astigarragan eta Leitzaldean

14garren edizio honek berrikuntzak ekarriko ditu eta aurreko astean hasi zen ekimena abenduaren 9a arte gauzatuko da liburutegietan.

URUMEA TOPAGUNEA

Euskaltzaleen Topaguneak *Irakurri, gozatu eta oparitu* ekimenaren 14garren edizioa jarri du martxan, urrian, Euskal Herriko udal, liburutegi eta argitaletxeekin lankidetzan abenduaren 9a bitartean. Aurten ekimenaren barruan sartuta daude Astigarraga eta Leitzaldeko (Goizueta eta Arano) liburutegiak.

Egitasmoan parte hartu nahi

duen orok irakurri duen liburu hori inguruko bati oparitzeko aukera izango du, beretzako mezu pertsonal bat idatziz. Publiko guztiari zuzenduta dagoen ekimen honetan parte-hartzeko, nahikoa izango da ondorengo hiru pausu erraz hauek jarraitzea.

Lehenengo pausoa herriko liburutegira joan eta euskarazko edozein liburu maileguan hartzean datza.

Liburua irakurri eta bukatzean, liburutegira itzuli eta fitxa erraz bat bete beharko da. Fitxa hori liburutegira jasoko du eta behin ekimenaren epea bukatuta, zozketa batean sartuko da beste parte-hartzaile guztien fitxekin batera.

Zozketan irabazle gertatzen direnek beraien etxean jasoko dute liburua, hasieran idatzitako mezua itsatsita duela, oparitua izateko prest.

500 liburu banatuko dira. Horrez gain, liburutegiek irakurketa gailu elektronikoak zozketatuko dituzte liburutegi bakoitzean partehartzaileen artean. **K**

Kronika

Larramendi 11, Hernani
943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña, I. Goñi, L. Goñi, A. Isasa,
B. Los Arcos, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, I. Santa Kruz eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:



KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Larramendi 11, Hernani
943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

TOKIKOM



DOBERA BAZKIDEAK KRONIKALARIAK

Autobus zerbitzuak, «ez ditu herritarren premiak asetzen»

Urriaren 5ean, autobus zerbitzuaren egoeraren berri emateko bilera egin zuen Udalak, astigartarrekin. Horrez gain, Foru Aldundiarekin izandako bileran azaldu ziren gaiak mahai gaineratu zituen Urdangarin alkateak.

ASTIGARRAGA AUTOBUS ZERBITZUA

Azken hilabeteetan, Astigarragako Udalak, herritarren kexak jaso ditu, autobus zerbitzua dela eta, honakoak esaterako; «lekurik ez, aurreko geltokietara joatea, busen egoera txarra eta abar. Lanera eta ikastera joateko orduetan gorabehera ugari gertatzen dira eta herritarren ezinegona handia da». Hori horrela, Astigarragako Udalak, Lurraldebusera eta Foru Aldundira sarritan bideratu ditu, baina jakinarazi du egoera ez dela hobetu.

Astigarragako A1 eta A2 bus zerbitzuen lineak, Buruntzaldeko bus zerbitzuen linean sartzen dira, eta hauen kudeaketa eta ardura, Foru Aldundiarena da. Aldiz zerbitzua eskaintzen duen enpresa, lehiaketa bidez hautatzen dela jakinarazi du Udalak. Eta honakoa gaineratu du «une honetan indarrean dagoen kontratua (emakida) duela 30 urtekoa da. Foru Aldundia duela bospasei urte Buruntzaldeko kontratua berritzeko lehiaketa egiten hasi zen. Emakida hori joan den uztailean esleitu zuen Foru Aldundiak. Horren ondotik, esleipenaren aurka errekurtsio bat aurkeztu dute eta errekurtsio hori ebazteko zain dago Foru Aldundia, emakida edo kontratu berria sinatu ahal izateko».

Astigarragako Udalak, azalpenak eta eskaerak, Foru Aldundiari

Astigarragako Udalak, orain arte herritarrek helarazitako kexak kontuan hartuta, Foru Aldundiarekin izandako bileran hainbat azalpen eman zituen, eta eskaerak ere luzatu zituen.

Udalak azaldu zuen, herritarren kexak ugariak zirela, hala nola, «kexa zerbitzua txarra delako, busen egoera tamalgarrria, autobusak ordu batzuetan geratu ez, jendea geltokietan...» Gaineratu zuen gainera, Astigarraga 7.160 biztanleko herria dela, eta 2025ean, 8.000 biztanle inguru izango direla, «tamaina horretako herri batentzat gaur egungo zerbitzua ez da nahikoa» azalduz. Gainera, garraio publiko bakarra du Astigarragak, autobusa, hain zuzen. Eta



Astigarragako alkatea, herritarrekin bildu zen, egoerari buruz jarduteko.

azkenik azaldu zuen, kontzesio berriarekin murrizketak aurreikusi zirela Astigarragako zerbitzuetan.

Astigarragako Udalak, aipatu moduan, herritarren eskaerak eta kexak kontutan hartuta, hainbat eskaera egin zizkion Foru Aldundiari, hala nola, errefortzuko zerbitzuak ziurtatzea eta behar diren errefortzu guztiak jartzea. Kontzesio berriak murrizketarik ez aplikatzea eta zerbitzuak indartzea. Autobusen egoera txarra konpontzea. A3 linearekin beste proba bat egitea. Beste aukera batzuk aztertzea: Andoain-Urnieta-Hernani-Ospitalak linean Astigarraga sartzea eta Donostiako Martuteneko lineak Astigarragara luzatzea.

Foru Aldundiak, eskaerei erantzun

Aldundiak, lehenik azaldu du, herritarrek zein Udalak aurkeztutako erreklamazio eta kexak, jasota eta erregistratuta dauzkatela. Horrez gain, honakoa azaldu zuen, «abuztua amaieran eta irailaren 15ean Martindegiko 7:10eko errefortzuko zerbitzua ez zen pasa eta horrek eragin zuen geltokian jendea geratzea. Errefortzuko zerbitzu horiek ez emateagatik Foru Aldundiak enpresari isunak jarri dizkio. Errefortzuko busek kale egin dute matxuratuta zeudelako. Egoera hori konponbidean da, baina baliteke beste egunen batean ere gertatzea».

Autobusak beteta joatearen kexari berriz, honako erantzuna eman dio Aldundiak, «pandemiaren eraginez, autobusetan aforo osoaren %80 erabiltzen

ari dira. Une honetan, Foru Aldundiak erregistratuta dituen erabiltzaileen datuen arabera, %80ko horren %80-90 inguruan dabilta gehien betetzen diren zerbitzu eta turnoetan. Jendea geltokian geratu da errefortzuko zerbitzuek kale egin dutenean, bestela ez».

Beste hainbat eskaerei ere erantzun die Foru Aldundiak, eta Astigarragako Udalak berriz, hainbat ondorio atera ditu, erantzun hauek aztertuta. Beraz Udalaren ustetan «beharrezkoa da bizi dugun errealitatea erakustea eta agerian jartzea. Ikuspegi horretatik, herritarrei dei egiten diegu bus zerbitzuan gertatzen zaizkien gorabehera guztiak (kexak, erreklamazioak) Lurraldebusi eta Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Departamentuari jakinarazteko: garrantzitsua da erakustea eta jakinaraztea busen mantentze egoera kaskarra, goizero gertatzen zaiguna (bi edo hiru geltoki aurrerago joaten garela, autoa erabiltzea erabaki dugula, geltokian geratzen garela...)».

Udalak bere aldetik, jasotzen dituen edo ikusten dituen gorabeherak bideratuko dizkie Lurraldebusi eta Foru Aldundiari. Herritarrek, nahi izanez gero, Udalarri bidal diezazkiokete kexa eta erreklamazioak udala@astigarraga.eus helbide elektronikora, behin hauek jasota, Udala arduratuko da Lurraldebusi bidaltzeaz.

Azkenik, Astigarragako Udalak gaineratu du, garbi dagoela, zerbitzuaren eskaintzak ez diela asetzen astigartarren premiak. **K**

Aurrekontu partehartzaileen hirugarren saioa gaur, Barandiaran Plazan

ASTIGARRAGA AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK

Astigarragako Udalak, guztira aurrekontu partehartzaileen 8 saio antolatu ditu, eta aurreko COVID-19aren ondorioz, saioak egiteko formatua moldatu egin da. Gaur erdigunean, Joseba Barandiaran plazan, 12:00etatik 13:30etara egingo dute hirugarren saioa, eta bihar berriz, bi lekutan egingo dira saioak, ordutegi ezberdinean: Ergobiko plazatxoan, 12:00etatik 13:30etara bitartean, eta Erribera Kulturguneko atarian, 18:30etatik 20:00etara.

Gripearen aurkako txertoa bihar emango da Ereñotzun Auzo Udaleko aretoan

EREÑOTZU GRIPEA

Gripearen aurkako txertoa emango da bihar, goizeko 10:00etan, Ereñotzuko Auzo Udaleko areto nagusian. Aurrez zita eskatu behar da, eta horretarako, gaur Auzo Udaleria gerturatu edo bertako telefono zenbakira deitu behar da: 943 551 000.

Aste bete gehiago dago Doberaren Kromiki lehiaketan parte hartzeko

HERNANI KROMIKI LEHIAKETA

Dobera Euskara Elkarteak, adin guztietako sortzaileentzako Kromiki lehiaketa jarri zuen abian «euskal kultura, sorkuntza eta irakurzaletasuna sustatzeko asmoz». Astebete luzatu dute parte hartzeko aukera eta, beraz, datorren ostirala, urriaren 23a, da lanak aurkezteko azken eguna.

Kontzientzia historikoaz mintzatuko da etzi Iñigo Larramendi, Biterin

HERNANI HERNANI ERROTZEN

Hernani Errotzenek antolatutako udazkeneko hitzaldi wzikloaren baitan, etzi Iñigo Larramendi izango da hizlari, arratsaldeko 19:30etan, Biterin. Larramendi izango da udazkeneko zikloko hitzaldiei hasiera emango diena, *Nafarroa euskal estatua. Baina... zer dela eta, Erdi Aroko kontu bat 2020an?* gaia jorratuz. Hitzaldi zikloan egingo dituzten ondorengo bi saioak urrian eta azaroan izango dira. Lehena Fernando Sanchez Aranazek eskainiko du, urriaren 29an. Bigarrena, aldiz, Iñaki Lopez de Luzuriagak, azaroaren 19an.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



IRENE ALFARO IBÁÑEZ

(Felix Ezquerroren alarguna)

Atzo hil zen, 93 urte zituela

Seme-alabak: Jesús eta María Luisa, José Mari, Félix; bilobak: Maialen eta Iñigo, Haizea eta Rubén, Xabier; anai-arrebak: Antonio eta Maitere, María Jesús; anai-arreba politikoak, ilobak, lehengusuak, gainerako ahaideek eta bere zaintzailea Irma Mejía.



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela

LARUNBATA, arratsaldeko **18:30etan**, **MIRANDA ARGAKO LA ASUNCIÓN (Nafarroa)** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko urriaren 20an

OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da GAUR eguerdiko 10:30ak arte.



IRENA ALFARO IBÁÑEZ

(Felix Ezquerroren alarguna)

- Goian bego -

«Nahiz eta gure artetik urrutira joan, beti izango zaitugu gure bihotzean».

ZURE ANAI-ARREBAK: ANTONIO ETA MARITERE NAVARLAZ ETA MARIA JESUS; ILOBAK ETA ALFARO SENDIA



Hernanin, 2020ko urriaren 20an

Armenia zein Nepaleko abenturak edota eskalada jasangarria, Mendizale Astean

Azaroaren 2tik 6ra antolatu du aurtengo Mendizale Astea, Biterin, Mendiriz Mendi elkarteak. Iñaki Zuza, Raul Diaz eta Angel Belda izango dira hizlari, besteak beste; eta argazki lehiaketaren sariak ere banatuko dituzte.

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Bertan behera utzi behar izan ditu irteerak, oraingoz behintzat, Mendiriz Mendi elkarteak; baina elkarrekin mendira joango ez diren garai honetan, mendizaletasuna ekarriko dute Biterira, beste urte batez. Izan ere, Mendizale Astea bai, antolatu du elkarteak. Azaroaren 2tik 6ra egingo dute, eta saio bana izango du arratsaldero.

Horrela, hainbat abentura eta bestelako gai interesgarriak ekarriko dituzte Biteriko aretora, mendiarekin zerikusia duten arlo ezberdinetakoak.

Armeniako natura eta kultur ondarea, ezagutzera

Iñaki Zuzak eskainiko du aurreneko saioa, astelehenarekin, arratsaldeko 19:30etan hasita, Biterin. Eta Armeniako natura eta kultur ondarea emango ditu ezagutzera Zuzak, aurtengo Mendizale Asteari hasiera emateko. Izan ere, mendiarekin oso lotuta dagoen herrialdea da.

Kaukaso mendikatearen hegoaldean dago Armenia, Europa



Mendiko bizikletarekin Nepalen bizitako abenturak ezagutaraziko ditu lagun talde batek, azaroaren 3an, Mendizale Astean. Argazkia: Mannapurna (Facebook)

eta Asiaren artean, eta muga egiten du Georgia, Azerbaijan, Iran eta Turkiarekin. «Bertako mendi eta baso paisaia harrigarrietan, antzinako eliza eta monasterio ederrak daude», aurreratu du. Eraikin horietako asko, hain justu, Gizateriaren Ondare izendatu ditu Unescok.

Mendiko bizikletarekin abentura, Nepalen barrena

Nepalera eramango ditu herri-tarrak, Mendizale Asteako bigarren proiektzioak. Izan ere, hango mendi inguruetan bizikletarekin egindako abentura ekarriko du Raul Diazek, bideo emanaldi batekin. Arratsaldeko 19:30etan izango da hori ere.

«Joan den udazkenean egin genuen Nepalera bidaia, mendiko bizikletarekiko zaletasuna daukagun lagun batzuk. Eta

bidaia horretan, Manaslu eta Annapurnako trekkingak egin genituen bizikletan, 17 egunetan zehar», azaldu du Diazek.

Eta horietan, «hainbat bidezidor malkartsu» ere gauditu behar izan zituzten, pedalei eraginez. «Abentura zoragarria» izan zela nabarmendu du Raul Diazek, eta egun horietan ateratako argazkiekin eta grabatutako bideoekin, ikusentzunezko muntaia bat prestatu dute, Mendizale Astean eskainiko dutena. «Gure esperientzia zuekin partekatu nahi dugu», azaldu du.

Facebooken ere eman dute abenturaren berri, Mannapurna izeneko orrialdean. Egunez egun bizitakoa kontatu dute bertan, abenturako protagonistek.

Eskalada jasangarria hizpide, Gipuzkoako Mendizale Federazioak

Mendiko beste atal bati egingo diote lekua asteazkenean, Mendizale Astearen hirugarren egunean. Izan ere, Gipuzkoan eskalada jasangarria egiteari buruz hitz egitera etorriko dira Gipuzkoako Mendizale Federazioaren ordezkariak. Aurrekoak bezala, Biterin izango da hori ere, arratsaldeko 19:30etan hasita.

«Eskaladaren joko eremua ingurune naturalean dago. Fauna eta flora espezieekin batera bizi gara, interes geologikoa duten lekuetan jarduten dugu, eta baita balio kultural handiko arkeologia aztarnategiak dituzten zonaldeetan ere», azaldu dute. Horregatik diote, «gure betebeharra» dela hori guztia errespetatzea. Eta era berean,

diote pertsona askoren lantokia eta bizilekua ere badela landa ingurunea: «beraz, bizikidetzarako oinarritzko arau batzuk errespetatu behar ditugu».

Hori guztia lantzerantz dator Gipuzkoako Mendizale Federazioa, Biterira: «eskalatzaileok sustatu behar dugu ingurumena errespetatzen duen eskalada, epe luze gozatu ahal izateko». Eta jakinarazi dute, «guztiz eguneratu dutela», duela urte batzuk argitaratu zuten dekalogoaren edukia. Hori horrela, eskatu dute bertan emandako aholkuak jarraitzea, eskalatzerakoan.

Angel Beldak eskainiko du osteguneko proiektzioa, azaroaren 5koa; baina oraindik ez dute aditzera eman, zeri buruz ariko den. Aurrekoak bezala, Biterin izango da hori ere, arratsaldeko 19:30etan.

Gaztetxoei dominak eta argazkilari onenei sariak, astea bukatzeko

Eta urteroko hitzordu batekin emango diote bukaera, aurtengo Mendizale Asteari. Ostiraleko hitzordua 18:00etan izango da, Biterin bertan, eta saio bikoitza prestatu dute.

Hasteko, gaztetxoak izango dira protagonista, proiektzio berezi batekin. Izan ere, gaztetxoen irteeretako irudiak jarriko dituzte, aurtengo normalean baino gutxiago izan badira ere. Eta ondoren, dominak banatuko dizkiete, irteeretan parte hartu duten gaztetxo guztiei.

Ostiraleko saioaren bigarren zatia, berriz, argazki lehiaketari eskainiko diote: sari banake-

MENDIZALE ASTEA 2020

Azaroak 2, astelehena: Armenia, natura eta kultur ondareak. Iñaki Zuza. Biterin, 19:30etan.

Azaroak 3, asteartea: BTT Nepalen. Raul Diaz. Biterin, 19:30etan.

Azaroak 4, asteazkena: Eskalada jasangarria Gipuzkoan. Gipuzkoako Mendizale Federazioa. Biterin, 19:30etan.

Azaroak 5, osteguna: Angel Belda. Biterin, 19:30etan.

Azaroak 6, ostirala: Gaztetxoen irteeren proiektzioa eta domina banaketa; eta XLI. Argazki Lehiaketaren sari banaketa. Ondoren, elkarteak urtean zehar egindako jardueretako irudien proiektzioa. Biterin, 18:00etan hasita.

ta egingo dute bertan. Bost sari banatuko dituzte aurtengo: Hernaniko argazki onena, mendiko argazki onena, paisaia baten argazki onena, argazki herrikoienena, eta bilduma onena. Sari bakoitzak, 75 euro eta trofeo jasoko du.

Argazki herrikoienena aukeratzeko, 15 argazki aukeratu dituzte epaimahaikideek; eta ondoren, ostiralean, bertaratutako herriarrek bozkatuko dute zein duten gustukoena. Boto gehien jasotzen dituenak eskuratuko du bosgarren sari hori.

Eta Mendizale Astea bukatzeko, proiektatuko dituzte elkarteak urtean zehar egindako jardueretako argazkiak, ostiralean bertan, dominak eta sariak banatu ondoren. **K**



Mendizale Astean hizlari izango da Angel Belda, beste behin.

Hernanik eta Mundarrok emaitza desberdinekin eman zioten hasiera lehiaketari lehenengo jardunaldian

Hernaniko gizonezkoen lehenengo taldeak irabazi egin zuen partidako luzapenean, 93garren minutuan, Iñaki Yanizen golarekin. Astigartarrak, berriz, esku-hutsik bueltatu ziren etxera, Zestoan 2-1 galdu ondoren.

ASTIGARRAGA-HERNANI FUTBOLA

Asteburu honetan eman zioten hasiera ligari, Astigarragako eta Hernaniko futbol taldeek. Aurredenboraldi arraroa izan da aurtengoa, baina sei hilabeteren ondoren futbol zelaira itzuli ziren, inoiz baino indar gehiagorekin. Partida asko jokatu ziren larunbatean eta igandean, baina guztiek ez zuten denboraldia nahi bezain ondo hasi, sailkapenerako lehenengo puntuak gehitzea ez zutelako lortu.

Garaipena eta porrota, lehenengo taldeetan

Hernaniko Ohorezko Erregional Maila Añorgaren aurka lehiatu zen larunbat arratsaldean, eta partida zaila izan arren, azken momentuan erabaki zen emaitza: 93garren minutuan Iker

Yanizek gola egitea lortu eta 1-0 irabazi zuten etxekoek. Lehiaketako lehenengo 3 puntuak gehitu dituzte, eta laugarren postua lortu dute sailkapen orokorrean. Norgehiagoka parekatua izan zen, baina Unai Munduateren mutilek egoera dominatzen jakin zuten, eta azken momenturarte borrokatzeak emaitza onak ekarri zituen berdeentzat. Datorren jardunaldia Beti Gazteren aurka izango dute, Lesakan.

Mundarroko gizonezkoen lehenengo taldeak, berriz, galdu egin zuen Zestoan, Getariako Ketaren aurka. 2-1 itxi zuen markagailua etxeko taldeak, eta astigartarrak esku hutsik bueltatu behar izan zuten. Asteburu honetan Zarkumendegin jokatu du, Beñat Iñurritegik zuzendutako taldeak, eta Urnieta izango dute aurkari.



Ruben Piron erdilaria, baloia oinetan duela, joan den larunbateko partidari.

Hernaniko bigarren taldeak, Gorengoen Mailan dagoenak, Tolosan jokatu zuen konpetizio-ko lehenengo partida. 3-2 galdu zuen Usabalen eta horregatik, zapore gazi-gozoarekin amaitu zuten jardunaldia hernaniarrek. Larunbatean etxean izango dute 3 puntuak eskuratzeko aukera, Billabonaren aurka.

Jubenilen Ohorezko mailan astigartarrak 2-leko emaitzarekin garaile irten ziren, Irungo Real Unionen aurka. Eta Ohorezko kadeteen mailan, emakumezko eta gizonezkoek, biek, berdinketa lortu zuten asteburuan, 1-1. Beti Ona izan zuten aurkari mutilek, eta Intxaurdi, berriz, neskek.

Emakumezko Erregionalen partida, bertan-behera

Hernaniko emakumeen lehenengo taldeak azaroan hasiko du lehiaketa, baina bigarren taldea asteburu honetan zen hastekoa. Hala ere, partida bertan-behera gelditu zen. Beraz, Touringen aurkako norgehiagoka aurrerago jokatu da. **K**

Emaitza onik ez zuten lortu asteburuan, saskibaloiko taldeek

Senior taldeek galdu egin zuten, eta bigarren taldeek ere porrota izan zuten asteburuan.

ASTIGARRAGA-HERNANI SASKIBALOIA

Astigarragako Mundarro eta Hernaniko taldeek denboraldiko bigarren partida jokatu zuten asteburu honetan. Hasiera ez da batere erraza izaten ari, bi taldeek porrota jaso baitzuten etxetik kanpo. Gizonezkoetan, emaitza parekatua izatea espero zen arren, Hernaniko senior taldeak 65-55eko emaitza lortu zuen Zarautzen aurka. Eta emakumeetan, senior lehen mailan, Mundarrok Mons-eko kiroldegian jokatu zuen CD Internazionalen kontra, eta norgehiagoka konplikatu baten ostean 80-37 galdu zuten astigartarrek.

Bestalde, Mundarroko eta Hernaniko bigarren taldeek asteburuan hasi zuten denboraldia hirugarren mailan. Kasu



Jubenil eta kadete taldeek oraindik ez dute hasi denboraldia.

honetan ere ez zuten emaitza onik izan. Hernaniko taldeak 68-39 galdu zuen CD Internazional talde indartsuaren aurka. Hurrengo aukera asteburu honetan dute Contubi Oiarso taldearen aurka, etxean. Azken hauek galdu egin zuten lehiaketako lehenengo partidari, eta

norgehiagoka parekatua espero da astebururako.

Eta astigartarren kasuan, Mondragon Unibertsitatearen kontra 72-61 itxi zen asteburuko partidako markagailua Arrasaten. Datorren jardunaldia etxean jokatu dute, Zaldurbi Debasqueten aurka. **K**

Bost lagunartetik, bi garaipen asteburuan

Asteburu honetan hasiko dute denboraldi berria, senior eta jubenil taldeek.

HERNANI ESKUBALOIA

Denboraldi hasiera «nahasia» izaten ari da, baina asteburu honetan jokatu dira lehenengo jardunaldiak. Senior mailan, hernaniarrek Urola izango dute aurkari. Etxean jokatu dute eta, beraz, kiroldegiko pistan izango da partida. Jubeniletan, berriz, mutilek Urnietaren kontra jokatu dute. Hauek ere Hernanin emango diote hasiera lehiaketari. Neska jubenilek, berriz, azaroko lehenengo asteburuan hasiko dute denboraldia. Aiala izango dute aurkari, eta etxean egingo dute estreinaldia, beraiek ere.

Hala ere, eskubaloia talde guztiek ez dute oraindik zehaztuta denboraldia hasteko egutegia. Kadeteak entrenatzen ari dira, baina ez da zehaztu ligan hasiera. Infantilen kasuan, taldea entrenatzen ari da, bai

na partida ofizialak urtarrilarte ez dira izango.

Bi taldeek soilik irabazi zuten asteburuko lagunartekoa

Hernaniko bost talde 2020-2021 denboraldirako motorrak berotzen hasi ziren asteburuan. Jokatu ziren bost partidetatik 2 garaipen izan ziren soilik; kadeteetan izan zen zorte hori, neska eta mutiletan. Nesken Hernani Aialak 19-11 irabazi zuten Errenteriako Ereintzaren aurka. Eta mutiletan, Hernani Sorlanek indarrak neurtu zituen Leizararen kontra, eta markagailua 44-22 itxi zuten. Mutilen kadeteen beste taldeak, ordea, ez zuten zorte bera izan: Hernani Leokak 20-33 galdu zuen, Donibane taldearen aurkako lehia.

Nesken kategoriako kadeteek garaipena lortu bazuten ere, jubenilek 30-19 galdu zuten Ereintzaren aurkako partida zailean. Bere aldetik, Pasaiaiko Donibane-ko gailendu egin zen jubeniletan, Hernaniren aurkako lagunartekoan, 28-22. Eta senior mutilek ere galdu egin izan zuten 25-30, Donibane koren aurka. **K**

Ondo jokatu arren, Euskadiko Ligako lehen jardunaldia galdu egin zuen talde hernaniarrak

3-1eko emaitza lortu zuten hernaniarrek Gasteizen. Lehia bizia izan zen pistan, baina hiru joko galdu zituzten Hernanikoek, eta bakarra irabazi. Hiru jokalaria lesionatuta dauden arren, laster taldea orekatzea espero dute, lanean jarraitzeko.

HERNANI BOLEIBOLA

Talde hernaniarrak Euskadiko Ligako lehen partida jokatu zuen larunbatean Gasteizen. Liga hasierari aurre egiteko baja demente izan zituen; izan ere, momentu honetan bi jokalaria erre-kuperatzen ari dira, ebakuntza izan zutelako. Gainera, hirugarren jokalaria bat lesiotik ateratzeko zorian dago eta, beraz, 3 jokalariren faltan hasi zuten denboraldia. Hala ere, astebete

Lehen partida honetan bi jokalarik egin zuten bere aurkezpena; bata Jokin Moreiro izan zen libero postuan, eta bestea berriz, Eneko Mitxelena, erasotzaile lanetan.

edo hamabost egunera hasiko da entrenatzen lesionatuta dagoen hori, eta pixkanaka plantilla erre-kuperatzea lortuko dute.

«Irudi ona eman bagenuen ere, ez genuen garaipena lortu» Ondo moldatu ziren hernania-

rrak ligako lehenengo partidan. Hala ere, markagailua 3-1 itxi zen Gasteizen. Lehen jokoan, ohiko estrategia aldatzea erabaki zuten, sare erdiko jokalaria bat besteriz ez zutelako. Gainera, moldaketa hori egiten ez bazuten, jokoan errotazioa derrigorrezkoa denez, jokalaria hau atzean egonik aurreko lerroa erdiko babesik gabe geratzeko arriskua zuten. Hala ere, estreategia ondo atera eta lehen joko 25-16 izan zen, etxekoan alde.

Bigarren jokoan, postu aldaketa pare bat egin ondoren, taldea betiko joko modura itzuli zen eta joko oso borrokatua izan zen. Saiakera haundia egin zuten hernaniarrek, baina akats erabakigarriak egin zituzten, eta 25-23 galdu zuten joko. Atsedenealdian indarrak hartu eta pistara indarrez sartu ziren, zirt edo zarteko asmoarekin, garaipena Hernanira ekartzeko asmotan. Sekulako maila erakutsi zuten eta 8-20 aurreratu ziren markagailuan. Minutuek aurrea egin ahala, zertxobait erlaxatu ziren, baina emaitza beraien aldekoa izan zen argi eta garbi, 17-25eko markagailuarekin.

Hirugarren jokoaren ostean partida 2-1 jarri zen. Lehia bizia izan zen Gasteizen, Euskadiko Ligako lehen garaipena jokoan



Hiru joko galdu eta bakarra irabazi zuten hernaniarrek Gasteizen, Euskadiko Ligako lehen jardunaldian.

zegoelako. Horregatik, laugarren joko oso parekatua izan zen eta erakustaldi bikaina eman zuten bi taldeek partidako azken txanpan. Hala eta guztiz ere, zortea ez zen hernaniarren alde egon. Behar baino akats gehiago egin zituzten eta azkenik, berriro ere 25-23 galtzea suertatu zen. Ondorioz, 3-1 amaitu zen partida.

Hernaniar jokalaria guztiek onartu zuten, beraiek galdu zutela partida. Izan ere, saihesterko aukera zuten zenbait akats

egin zituzten norgehiagokan. Hala eta guztiz ere, maila ona eman zuten kantxan, eta lanean jarraituko dute. Gainera, azken hilabeteetan entrenatzeko izan dituzten zailtasunak kontuan izanda, eta jokalarien bajak daudela ikusita, datozen jardunaldietan emaitza hobeak izango dituztela aurreikusten da.

2 jokalariren debuta izan zen Gasteizen, titular modura Lehen partida honetan titular

modura bi jokalarik egin zuten bere aurkezpena. Bata Jokin Moreiro izan zen, libero postuan; eta bestea, berriz, Eneko Mitxelena, erasotzaile lanetan. Estreinaldi bikaina egin zuten biek, eta ederki moldatu ziren pistan.

Hernaniko taldeak honako jokalarien aldeko apustua egin zuen, alineazioa osatzeko: Jokin Moreiro, Aitor Lizarazu, Adrian Les, Eligio Rodriguez, Iñaki Nagore, Patxi Aguiar, Hans Romero eta Eneko Mitxelena. **K**

FUTBOLA		
MUT.OHOREZKO. ERREG.	Hernani-Añorga	1-0
MUT. ERREG. PREF.	Tolosa-Hernani	3-2
MUT. ERREG. PREF.	Getari-Mundarro	2-1
NESK. ERREG	Hernani-Turing	Bertan behera
MUT. JUB.OHOR. MAILA	Hernani-Beasain	Bertan behera
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Real Union-Mundarro	2-1
MUT. KAD. OHOR	Añorga-Hernani	0-0
MUT.KAD. OHOR	Mundarro-Beti ona	1-1
NESK. KAD. OHOR	Añorga-Hernani	7-1
NESK. KAD. OHOR	Intxaurdi-Mundarro	1-1

ESKU PELOTA		
PROFESIONALAK	Olaizola II-Uriondo/Larrazabal-Imaz	22-19
PROFESIONALAK	Egiguren V-Zabaleta/Salaberria-Rezusta	11-22

KADETEAK	Intza/Elizazu-Txintxurreta	9-22
KADETEAK	Ilunpe/Manterola-Martin	12-22
KADETEAK	Añorga/Iturbe-Udangarin	7-22
JUBENILAK	Añorga/Uitzi-Etxarri	22-15
JUBENILAK	Bergara EA/Arluziaga-Laboa	x-22
NAGUSIAK	Salaberria-Ortiz de Urbina/Eple	22-2

BOLEIBOLA		
MUT. SENIOR	Gasteiz-Hernani	3-1

PALA		
MUT.NAGUSIAK 1.GO MAILA	Altzatarra-Hernani	25-07
NESK.NAGUSIAK 1.GO.MAILA	Hernani2-Su-Berri5	19-30
NESK.NAGUSIAK 1.GO.MAILA	Hernani-Su-Berri	Bertan behera
NESK.NAGUSIAK 1.GO MAILA	Hernani2-Hernani1	12-30
MUT.NAGUSIAK 2.GO MAILA	Atxurbide-Hernani	25-13
NESK. NAGUSIAK 2.GO MAILA	Hernani1-Ataun	30-23

NESK.JUBENILAK	Hernani4-Intxurre3	30-03
NESK.JUBENILAK	Hernani2-Hernani1	30-05
NESK.JUBENILAK	Hernani3-Mundarro	30-13

ESKUBALOIA		
NESK. KADETEAK	Hernani-Ereintza	19-11
MUT. KADETEAK	Hernani-Donibaneko	20-30
MUT. KADETEAK	Hernani-Leizaran	44-22
NESK. JUBENILAK	Hernani-Munttarpe Ereintza	30-19
MUT. JUBENILAK	Donibaneko-Hernani	28-22
MUT.SENIOR	Hernani-Donibaneko	25-30

SASKIBALOIA		
MUT. GIP. 1GO MAILA	Zarautz-Hernani	66-55
MUT. SERNIOR 3. MAILA	CD Internacional-Hernani	68-39
MUT. SERNIOR 3. MAILA	Mondragon-Mundarro	72-61
NESK.SENIOR 1.MAILA	CD Internacional-Mundarro	80-37

Asteburu zaila nagusietan, jokatutako lau partiduetatik hiru galduta

Balerdik eta Otaegik lortu zuten garaipen bakarra. Porrota jaso zuten mutil nagusien bi taldeek, eta Eizmendik eta Urdangarinek.

URUMEA PALA

Partidu asko jokatu dituzte asteburu honetan, Urumea bailarako palistek, bereziki Hernaniko kiroldegiko frontoian; eta irabazi ere, asko irabazi dituzte. Baina ez, hala ere, nagusien mailan: asteburu zaila izan dute, eta jokatutako lau partiduetatik hiru galdu dituzte.

Haien artean, Balerdik eta Otaegik lortu dute garaipen ba-

karra, Atauni 30-23 irabazita, neska nagusien bigarren mailan. Lehenengo mailan, porrota jaso zuten Eizmendik eta Urdangarinek, Su Berriren kontra (19-30); eta bertan behera geratu zen Irazustabarrena eta Arrietarena, COVID-19 kontuak tarteko. Mutilen, berriz, galdu egin zuten Lujanbiok, Ramosek eta Zubimendik, lehenengo mailan, Altxatarraren kontra (7-25); eta Zurutuzak, Arandiak,

Agirrek eta Manterolak osatzen duten taldeak, bigarren mailan, Atxurbideren kontra (13-25).

Neska jubeniletan, berriz, bi derbi jokatu dituzte asteburuan. Batetik, elkarren kontra aritu dira bi bikote hernaniar: Tolaretxipik eta Barrenetxeak 30-5 irabazi zieten, Arruti eta Martinezi. Eta bestetik, Iriondo eta Miner hernaniarrak 30-13 nagusitu ziren, Arraras eta Zugasti astigartarren kontra. Beste partidua bat ere izan zen, kategoria horretan: Kerejeta eta Macicior hernaniarrek, erraz irabazi zuten kiroldegiko frontoian, Intxurren kontra (30-3). **K**



Enekoitz Azparren, Beñat Carbayedaren atzean, Mendaroko helmugan.

Enekoitz Azparren bigarren, Gipuzkoakoan

Azkeneko esprintean egin zion ihes garaipenak, Beñat Carbayedaren aurrean. Mendiko sailkapena irabazi zuen berak.

dunaren maillota eskuratu astigartarrak, beraz; baina mendiko sailkapena bai, berak irabazi zuen, Kalbario gainetik bigarren eta aurrena pasata, lasterketa- ren bi igoeretan.

Kadete mailako lasterketa ere izan zen larunbatean, Lazkaon: Hesparru Proba. Eta bertan izan ziren bailarako hiru txirrindulari. Ezin izan zuten aurreko postuetan sailkatu, eta Unax Urretabizkaia izan zen hiruetan onena, 49garren, Aimar Madina irabazlea baino minutu eta 50 segundu beranduago iritsita Lazkaomendiko helmugara. Tasio Semperena astigartarra, berriz, 84garren izan zen, eta 89garren helmugaratu zen Ekhi Muñoz herrikidea. Taldeka laugarren izan ziren hirurak, Donosti Berrirekin. **K**

URUMEA TXIRRINDULARITZA

Zita garrantzitsua zeukaten larunbatean, Mendaron, jubenil mailako txirrindulariek. Bertan izan zen Enekoitz Azparren astigartarra, indartsuenen artean. Garaipenak, ordea, azkeneko esprintean egin zion ihes, aurrea hartu baitzion Beñat Carbayeda lasartearrak. Denei aurrea hartuta iritsi ziren biak, helmugako azken aldapara. Atzetik sartu zen Unai Cueva, hirugarren.

Ez zuen Gipuzkoako txapel-

Ia partidua guztiak irabazi dituzte esku pelotari hernaniarrek

Sei partidutik bost irabazi dituzte, eta garrantzitsuenetan ez dute hutsik egin. Lau bikote daude oraindik partidurik galdu gabe.

URUMEA ESKU PELOTA

Asteburu ona izan da joan dena, Hernaniko esku pelotariarentzat. Sei partidua jokatu dituzte, eta horietatik bostetan lortu dute garaipena. Gainera, ez dute hutsik egin, partidua garrantzitsuenetan, eta CD Hernaniko hiru bikote daude, Gipuzkoako Txapelketan partidurik galdu gabe, oraindik ere.

Kadeteen bigarren mailan, irabazi egin zuten Unax Manterolak eta Manex Martinek, Azpeitian; eta Aiur Elizazuk eta Auritz Txintxurretak, Lasarten. Hori horrela, dagoeneko sailkatu dira azken fasea jokatzeko, ligaxkako partidua bat falta denean. Egoera berean daude



Xabier Ortiz de Urbina, pelota astindu berrian, larunbateko partiduan.

Xuban Iturbe eta Markel Urdangarin ere: Añorgan irabazi zuten hirugarren mailako kadeteek, eta dagoeneko lortu dute pasea, azkeneko fasea jokatzeko.

Garrantzitsua izan zen, era berean, Xabier Salaberriak eta Xabier Ortiz de Urbinak lortutako garaipena ere, seniorren hirugarren mailan. Epleri irabazi zioten, eta haiek ere, porrotik gabe jarraitzen dute, Gipuzkoako Txapelketa honetan. Seguru dute azkeneko fasea jokatzeko, kadeteen hiru bikoteek bezala.

Jubeniletan, porrota jaso zu-

ten Uitzik eta Etxarrik, eta garaipena Arluziagak eta Laboak, aurkariak aurkeztu ez zirelako. Eta gainerako mailetan, atsedeen hartu zuten esku pelotari hernaniarrek, eta baita astigartarrek ere. Datorren asteburuan ekingo diote berriro.

Eta profesionalean, Binako finalaren faltan, Uriondorekin aritu zen Aimar Olaizolak, eta 22-19 irabazi zuen, Larrazabal eta Imazen kontra. Iker Salaberriak ere, garaipena lortu zuen Rezustarekin (22-11), Egiguren V eta Zabaletaren kontra. **K**

Larraitzen hirugarren, Hodei Lujanbio

Ordiziako mendi maratoi erdiko podiumera igo zen goizuetarra. 28garren izan zen Xabat Pagola hernaniarra.

ta osoan, eta baita podiumera igo ere: hirugarren sailkatu zen Hodei Lujanbio goizuetarra, 1:44:44 denborarekin, Martin Diez segurarraren eta Iñaki Olano altzotarraren atzetik. Denboraldiari bukaera bikaina eman dio goizuetarrak, horrela.

Primerako mailan aritu zen Xabat Pagola hernaniarra ere, eta 28garren sailkatu zen, 1:58:44 denbora eginda. Eta minutu gutxira helmugaratu zen Gonzalo Alzaga herrikidea ere, 2:05:55 denboran osatuta Larraitzetik Alotzara eta Igaratzara eraman zituen ibilbide gogorra. **K**

URUMEA MENDI LASTERKETAK

Azkenaldiko mendi lasterketa apurretako bat jokatu zen igandearen Larraitzen: Ordiziako mendi maratoi erdia. Eta bertan izan ziren, Urumea bailarako hiru korrikalari. Haietako bat, gainera, onenen artean ibili zen lasterke-

IRAGARKI MERKEAK

Errioguardan eramateko menua. GAUR: Esparrago eta azelga penkak plantan almendra olioarekin - Ahate hegala konfinatuak Oporto saltsarekin - Etxeko yogurra franbuesa mermeladarekin. BIHAR: Garbantzuak txorizoarekin - "Ajoarriero" a - Ijito besoa. **10,5 €.** **Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

EGURALDIA

GAUR



Laino gehiago izango ditugu gaur, baina erdi- eta goi-lainoak izango dira, batez ere. Hegoaldeko haizea ibiliko da, eta oso bolada gogorrek joko du, bereziki arratsaldetik aurrera. **Min.16° / Max.23°**

BIHAR



Hegoaldeko haize zakarrarekin jarraituko dugu bihar, eta oso bolada gogorrek izango dira, bereziki egunaren aurreneko zatian. Zeruian, lainoak eta ostarreak tartekatuko dira. **Min.16° / Max.25°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAIINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353

Euskal Herriko 1go Sega Sail Txapelketa Jauregi jatetxeko belardian antolatu da

Igandean gizonetzkoen eta emakumezkoen txapelketa jokatu da 12:00etatik aurrera eta bertan Iñigo Merkader hernaniarra ariko da. Ez da belarra pisatuko eta 1.000 eta 400 metro karratuko sailak moztu beharko dituzte ahalik eta azkarren.

HERNANI SEGA

Jauregi baserri eta jatetxeko belardiak Euskal Herriko 1go Segai Sail Txapelketa hartuko du igandean, eguerdiko 12:00etatik aurrera. Almitza Segai Elkarteak antolatuko du eta bertan 1.000 eta 400 metro karratuko sailak ebaki beharko dituzte, lau gizon segalarik eta lau emakumezko segalarik. Belarra ez da pisatuko, azkarren moztu behar duenak irabaziko du lehenengo txapela hau.

Partehartzaileen artean Iñigo Merkader hernaniarra ariko da. Arkaitze baserriko semeak, etxetik gertu, auzoan, belarra mozteko aukera izango du udaran zehar Donostiarraren bigarren traineruan arraunean ibili ondoren.

Gizonezkoei dagokionez bere aurkariak izango dira Iban Pardo, pasa den urteko azkartasunean txapelduna, Julen Gabirondo txapeldunordea eta Mikel Lizartza. Emakumezkoetan, Irati Astondoa, Alaitz Imaz, Malou Henriksen eta Ainara Otamendi izango dira lehian. Iazko lau finalistek egin zitzaizkien gonbidapena baina Jon Otegi ezingo da bertan egon.

Bi ekitaldi bakarrik antolatu dira orain arte segan

Covid-19ak baldintzatutako egoera berri honetan, herri kirolak orokorrean eta, segalaritzak bereziki, oso egoera zaila bizi du. Almitza Segai Elkartetik, aurtengoan bi ekitaldi antolatu dituzte nazioarteko moduan, Usurbil eta Zaldibian. Bestalde, herri kirol federazioak urtero antolatu ohi dituen sega txapelketak, bertan behera geratu dira.

Almitza Segai Elkartetik, hainbat segalari eta sega munduko hainbat eragilerekin bildu, eta aukerak aztertu ondoren antolatu dute igandeko sega txapelketa. Nahiz eta txapelketa ofizialtzat onartua ez izan aurtengo antolatu den txapelketarik garrantzitsuenak izango da partaidetza bikainarekin.

Berrikuntzez beteriko iraupeneko txapelketa

Txapelketa egitura honek, hainbat berrikuntza dakartza ohiko sega txapelketetik. Ez da belarrik pisatuko, baina iraupeneko lana izango da. Helburua, saila



Jokin Urretabizkaia 'Basozabal' pasa den urteko urrian, Jauregin, antolatu zen desafioan.

ahalik eta azkarren, baina txukun ebakitzeko izango da. Segalari bakoitzak bina belar biltzaile izango ditu, ebaki ahalak gerta litezkeen huts egiteak bistartzeko, eta epaileak momentuan adierazitako akatsak, segalariak maila ebaki eta hurrengora itzulera txukundu beharko ditu.

Araudia, edozeinen eskura egongo da, baina osasun egoerak eskatzen dituen baldintzak betetzeko, segalari bakoitzak laguntzaile-zorroztaille bakarria izango du. Segalari bakoitzak bina belar biltzaile bakarrik izango dira eta epaile bat segalari bakoitzak.

Elkarren artean hiru metroko seguritasun tartea gordeko dute lehiak dirauen bitartean. Ekitaldiaren hasiera, 12:00etan izango da. Lehenik emakumezkoak lehiatuko dira eta beraien lana 20-25 minutu ingurukoa izango dela aurreikusten da. Bost minutuko atsedenaldiaren ondoren, gizonetzkoen txapelketari emango zaio hasiera eta honek, 35-40ko iraupena izango du asko jota. Segalariak lanak bukatu ahalako ordenak, momentuan ikusaraziko ditu txapelketaren emaitzak. **K**

'Larra' eta 'Basozabal' en apustuaren ondoren, Jauregi berriz modan

Badirudi antolatzaileak Hernaniko belardian txapelketak egiteko pausoa eman dute eta hemendik aurrera etorkizun polita izan dezake.

HERNAN SEGA

Herri kirolen munduan Jauregi Jatetxeak badu historia haundia. Garai batean Erriopean zeuden belardiak ziren apustuen kokaleku nagusia. Aia, Asteasu, Zizurkil, Tolosa, Beizama, Azpeitia, Zestoa eta Aizarnazabal ziren apustuak hartzen zituzten herriak, baina, behin Jauregi jatetxea martxan jarrita, erreleboa hartu zuen Hernaniko belardiak.

80garren hamarkada amaitu zenean eta mende berriarekin batera Jauregi bigarren mailan geratu zen eta gauza gutxi antolatu ziren, baina azken hiru urteetan badirudi gauzak animatzen hasi direla berriz eta etorkizun polita

izan dezake segalariak bertara itzultzen badira. 2018ko apirilean; Roxario Pikabea eta Jon Arizmendi aritu ziren korrika eta aizkoran, ez segan, Jauregi parkinean, baina auspoa eman diona pasa den urtean Jokin Urretabizkaia *Basozabal* eta *Larra*-ren arteko apustua izan da. Jendetza bildu zen eta belardia primeran zegoen. Dudarik gabe, bere eragina zuzena izan da Jauregi berriz ere sega txapelketa bat ikusteko. Leku ezin hobea da eta txapelketa desberdinen antolatzaileak eta federazioak Jauregi pentsatu dezakete euren konpetizioak egiteko.

Almitzak aurretik antolatu izan du txapelketa Jauregin bertan. 2010eko abuztuaren 28an jokatu zuten Bixente Mitxe-

lena eta Jexux Mari Goenaga euskaldunek Alexander Schmit eta Stefan Heinz alemaniarren aurka. Bakoitza orduerdiz aritu zen Bikote euskaldunak, bien artean, 2.053,50 kilo ebaki zituen. Bikote alemaniarrek, berriz, 1.850,50. 6.000 euro jokatu zituzten eta 300 bat pertsona bildu ziren.

Mende honetan baita ere, beste apustu bat jokatu zen Jauregin segan. Euskal Herriko lau segalari onenetariakoak, hoberenak ez esatearren, binaka lehiatu ziren. 2005eko irailean Juan Manuel Erasun eta Mikel Aranaldek Bixente Mitxelena eta Jexux Mari Ormaetxea *Urki* garaitu zituzten. Txanda librean irabazleek 5.193 kilo ebaki zituzten eta galtzaileek, 5.126,50 kilo.